ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko ekainaren 12a, asteazkena • 66 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# AGURAINGO UDALA

**Zaborren tasaren errolda, 2024ko bigarren hiruhilekokoa**

Jendaurrean jarriko da 2024ko bigarren hiruhilekoko zaborren tasaren errolda hogei egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Alegaziorik aurkezten ez bada zaborren tasaren erroldaren aurka jendaurrean dagoen 20 egun baliodunetan, ordaintzeko epea hasiko da.

Zaborra biltzeko zerbitzuaren 2024ko bigarren hiruhilekoko ordainagiriak aldi honetan ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean: 2024ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (egun biak barne).

Zerga horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorarazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu dezaketela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketa Arautegi Orokorrak, eta ehuneko bosteko errekarguarekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak; errekargu hori bateragarria da luzapen errekarguarekin.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2024ko ekainaren 4a

*Alkatea*
*RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.06.12 05:20:54 Z